



Gizarte Segurantzako afiliazioak gora egin du berriro

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte bakoitzeko iraila. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,3 handitu zen irailean. Aldakuntza tasa hori aurreko hilekoa baino bi hamarren handiagoa izan zen. Guztira, 1.007.000 afiliazio baino gehiago erregistratu ziren, irailean izandako baliorik handiena.

Erregistratutako langabezia igo egin zen berriro

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko iraila. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Irailean, Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %1,2 gehitu zen aurreko urteko aldi beraren aldean. Zehazki, 108.000 pertsona zeuden langabezian, duela hamabi hilabete baino 1.300 gehiago. Beste behin ere, emakumeak (%1,4) eta gazteenak (%6,0) izan ziren eragin negatiboenak pairatu zituztenak.



Azalera handietako salmentak % 1,0 gehitu ziren

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko abuztua. Indizea




Iturria: Eustat.

Abuztuan, Euskadiko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %1,0 gehitu ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Gorakada hori elikagaien bilakaera positiboak eragin zuen (%1,6). Era berean, enpleguak hazkunde erritmo onekin jarraitu zuen (%1,9).

Industriaren ekoizpenak %0,1 handitu zen abuztuan

Industriaren ekoizpena
Urte bakoitzeko abuztua. Indizea



Iturria: Eustat.

EAEko industria jardura %0,1 handi zen abuztuan, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Gehikuntza hori tarteko ondasunen bilakaerak (%1,9) eta ekipamendurako ondasunen bilakaerak (%0,2) eragin zuten, zeren eta indizea osatzen duten gainerako taldeek tasa negatiboak izan baitzituzten.